

## 3-BALIABIDEAK

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak imaginazioa edo sormena (diseinuak sortzeko), informatikari buruzko ezagutzak eta merkataritzarako trebezia (besteei gure proiektuaren berri emateko) izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Lan egiteko erabiliko duguna, fabrika bat izango da (alokatua). Honez gain, eraztuna sortzeko erabiliko ditugun materialak eta gure proiektuaren berri emateko erabiliko ditugun ordenagailuak baita ere sartuko dira baliabide fisikotan.

Baliabide intelektualei erreparatuz, denboraren poderioz sortzen eta garatzen joango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu hasiera batetik, inork gure ideia kopia ez dezan. Gure produktuaren markaren izena BIJOUX izango da.

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik hasiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobetxatzeko eskudiru adina lortuko dugu.